

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/18

Ekonomiaren Garapenerako diputatuak sare metropolitarrako trafikoaren dentsidadeari aurre egiteko jarduketa bi aurkeztu ditu Batzarretako taldeen aurrean

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Diputatuak, sare metropolitarrako hiru puntu kritikoek jasaten daben trafiko pilaketaren arazoari bukaerea emoteko helburu nagusia daben jarduketa bik osatutako plan integratua aurkeztu dau gaur goizean jagokon Batzordearen aurrean: Puntu horreek La Avanzada, Arrontegi eta Max Center dira.

Lehenengo jarduketea, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra parte bitan osotzea da: Peñaskal – Bolintxu eta Bolintxu – Venta Alta. Beste alde batetik, Imanol Pradales diputatuak gaur planteau dauen bigarren ekintzak Lamiakon, itsasadarraren azpian, tunel multimodala eregitea aurreikusten dau. Noranzko bakoitzean errei bi izango leukez, bereizitako galtzada bi eta 3 kilometro inguruko tunel bi. Proiektu batzuk lizitazino fasean dagozan arren, bigarren jarduketari jagokonez, aurretik informazino azterlana egingo da. Azken horren esleipenerako epea urte honetako bagila izango da, eta urtebeteko epealdia egongo da egiteko.

Imanol Pradalesek adierazo dauenez, obra bi horreek “lurraldearen eta bertako enpresen konektibitatea eta lehiakortasuna hobetzea” ekarriko dabe, eta “mobikortasunaren mapa barria marraztuko dabe”.

Aldundiko arduradunaren azalpenak entzun ostean, Talde Popularrak eta EH Bilduk kritikau egin dabe Lurralde Sektore Planeamendurako (LSP-PTS) Batzordeari jakinarazo aurretik komunikabideei jakinarazo izana. Horrez gain, EH Bilduko ordezkariak esan dau bere taldearen eretziz Errekaldeko saihesbideak eta eskualdeen irisgarritasunak Supersur izenekoaren luzapenak baino lehentasun handiagoa daukiela. Podemos Bizkaiko ordezkariak, bere aldetik, “Bizkaiko Foru Aldundiak LSP-PTSaren gainean hartutako erabagietan eztabaidea, adostasuna eta pluraltasuna” falta dirala argi geratu dala nabarmendu dau. Euzko Abertzaleak taldeko batzordekidearen berbetan, apustua “garrantzi handikoa da”, eta “erabagia ona eta une egokian hartutakoa” dala azpimarratu dau; proposamena positibotzat hartu dauen ordezkari sozialistea be bat etorri da eretxi horregaz.

Ildo berean, Ekonomiaren Garapenerako Diputatuak, Talde Popularrak, Artxandako tuneletako trafiko dentsidadearen eta Errepideen Foru Sarearen egoeraren ganean egindako agerraldi eskari biri erantzun deutse.

Lehenengo gaiari jagokonez, Talde Popularreko ordezkaria arduratuta agertu da, Moyua plaza oinezkoentzat mugatzeak Tuneletako trafikoan euki daiken eragina dala eta. Proposamen hutsa baino ez danez oraindino aurreikusita ez dagon arren, Imanol Pradalesek esan dau “oinetzkoentzako mugatze posible horrek ez leukela aldaketa handirik eragingo Artxandako tunelen erabiltzaileen jokabidean”. Idea, adierazo dauenez,

hainbat proba pilotu martxan jarrea izango litzateke, proposamenek bideragarritasunik daukien ala ez ikusteko, baina horreek, neurri handian, Bilboko Udalaren erabagiaren menpe dagoz. Halanda be, azpimarratu dauenez, “Foru mailan guk kontrolau daikeguzan parametroakaz, ez dau emoten eragin handirik eukiko dauenik”.

Erantzunen txandan, ordezkari popularrak bere taldeak gai hori “oso gertutik” jarraituko dauela adierazo dau. Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, barriz, uriek “atseginak izan behar dabela” azpimarratu dau. EH Bilduk, plazea oinezkoentzat mugatzeko proposamena modu positiboan balorau dauen arren, ibilgailu pribaduentzat itxita egon eta garraio publikoaren erabilera bultzatuko litzatekelako, “gauzak oraindino berde dagozala” esan dau. Foru Gobernu eusten daben taldeek bat egin dabe Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Diputatuaren berbakaz.

Bigarren gaiari jagokonez, Aldundiko ordezkariak 2016ko datuen balantzea egin dau. Bertan adierazoten dan ez Errepide Foru Sareak 39.500 ibilgailu jaso ebazan egunean eta, holan, “Bizkaian mobiduten diran hiru ibilgailutik bi Foru Sarean ibiltzen dira”. Gainera, Pradalesek azaldu dauenez, une honetan adostasuna dago adituen artean, dentsidatea eta horren abaguneak ezagutzeko intentsidade lotetsiak zehazteko: 30. ordua izenekoa (30 ordu urtean), 100. ordua izenekoa (100 ordu urtean) eta 200. ordua izenekoa (200 ordu urtean).

Lehenengoan istripuak jasoten dira, bigarrenean istripugarritasuna eta gaitasun koiuntural faltea, eta hirugarrenean istripugarritasuna eta gaitasun estruktural faltea. Beraz, 2016ko datuak kontuan izanda, 200. ordua izenekoa Avanzadako tarte batean gertatu zan, eta 100. ordua izenekoa Arrontegin, Avanzadan, Max Centerreko zuzengunean eta Santo Domingon.

ALBOKO LANGEN BABESAK, LABEAGAKO PASABIDEA ETA EZKERRALDEKO BIDEGORRIA

Eguneko gai zerrendea, EH Bilduk BI-3341 errepidearen alboko langen babesari, Labeaga auzoko N-240 errepide gainera pasabideari eta Ezkerraldeko bidegorriari buruz egindako hiru erantzun-eskeguz osatu da. Lehenengoan apirilean gertatu zan eta 15 urteko txirindulari batek alboko langen babesaguz kalteak izan ebazan istripua aitatu da. Horri jagokonez, diputatuak azaldu dau babeseko sistemek indarrean dagon araua beteten daben arren, apirilaren 17an tarte horretako sistema osoa aldatzea erabagi zala, Foru Arauaren eskakizunetara egokituz. Bigarren gaiari jagokonez, Aldundiko ordezkariak baieztu dau daborduko hasi dala eregiten N-240 errepidearen alde biak lotuko dituan eta oinezkoen segurtasuna eta mobikortasuna bermatuko dauen oinezkoentzako pasabidea. Bukatzeko, Ezkerraldeko bidegorriari jagokonez, bere saila, hilebete honetan bertan Bizkaiko Batzar Nagusietara bialduko dan azterlanaren txostena bukatzen ari dala esan dau.

NOTA DE PRENSA

18/05/18

El diputado de Desarrollo Económico presenta ante los grupos junteros dos actuaciones para combatir la densidad de tráfico de la red metropolitana

El diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha presentado esta mañana ante la Comisión correspondiente un plan integrado por dos actuaciones que tienen como principal objetivo acabar con el problema de saturación que sufren los tres nudos más críticos de la red metropolitana: La Avanzada, Rontegi y Max Center.

La primera de las actuaciones consiste en la complementación de la Variante Sur Metropolitana en dos tramos: Peñascal – Bolintxu y Bolintxu – Venta Alta. Por otra parte, la segunda de las acciones planteadas hoy por el diputado Imanol Pradales contempla construir un túnel multimodal bajo la ría en Lamiako. Éste estaría compuesto por dos carriles por sentido, dos calzadas separadas y dos túneles de alrededor de tres kilómetros cada uno. Si bien ambos se encuentran en fase de licitación, respecto la segunda actuación se realizará previamente un estudio informativo que tiene como plazo de adjudicación junio de este mismo año y que se realizará en un plazo de un año.

Imanol Pradales ha asegurado que estas dos obras supondrán la “mejora de la conectividad y competitividad del territorio y sus empresas” y que “dibujan un nuevo mapa de movilidad”.

Tras escuchar las explicaciones del responsable foral, tanto el Grupo Popular como EH Bildu han criticado que éstas fueran puestas en conocimiento a los medios de comunicación antes que a la Comisión del Planteamiento Territorial Sectorial (PTS). La representante de EH Bildu, además, ha manifestado que para su grupo la variante de Rekalde y la accesibilidad de las comarcas suponen una mayor prioridad en comparación con la prórroga de la Supersur. La representante de Podemos Bizkaia, por su parte, ha evidenciado una falta de “debate, consenso y pluralidad en las decisiones de la Diputación Foral de Bizkaia” en torno al PTS. La apoderada del grupo Nacionalistas Vascos ha definido esta apuesta como “de gran calado” y ha asegurado que “se ha tomado una buena decisión y en el momento adecuado”; una idea que también ha compartido el representante socialista que ha tildado la propuesta como positiva.

En la misma línea, el diputado de Desarrollo Económico ha respondido a dos solicitudes de comparecencia del Grupo Popular en torno también a la densidad de tráfico tanto del Túnel de Artxanda como de la Red Foral de Carreteras.

En la primera de las cuestiones el representante del Grupo Popular ha mostrado su preocupación por la incidencia que podría tener en el tráfico de los Túneles una posible peatonalización de la Plaza Moyúa. A este respecto, si bien aún su ejecución no está prevista al ser todavía una simple propuesta, Imanol Pradales ha asegurado que “esa posible peatonalización no supondría una variación significativa en el comportamiento de los usuarios de los Túneles de Artxanda”. La idea, tal y como ha expresado, será la de

poner en marcha una serie de pruebas piloto para ver si las propuestas tienen viabilidad, pero que éstas dependen en parte de la decisión del Ayuntamiento de Bilbao. Sin embargo ha resaltado que “con los parámetros que nosotros podemos controlar en el ámbito foral no parece que pudieran haber afecciones significativas”.

En el turno de réplica el representante popular ha manifestado que su grupo seguirá “muy de cerca” el asunto. La apoderada de Podemos Bizkaia, por su parte, ha incidido en la idea de que las ciudades “deben ser amables”. EH Bildu, aunque ha valorado positivamente la propuesta de peatonalización de la Plaza, puesto que ésta restringiría el uso de vehículos privados e impulsaría el uso de transporte público, ha afirmado que “las cosas aún están verdes”. Los grupos que sustentan al gobierno foral han suscrito las palabras del diputado de Desarrollo Económico y Territorial.

En la segunda cuestión, el representante foral hecho un balance de los datos adquiridos en 2016 que aseguran que la Red Foral de Carreteras registró un total de 39.500 vehículos por día y que por lo tanto “dos de cada tres vehículos que se mueven en Bizkaia lo hacen en la Red Foral”. Asimismo, Pradales ha explicado que actualmente existe un consenso entre expertos para determinar las intensidades asociadas para conocer la densidad y sus circunstancias: la hora 30 (30 horas al año), la hora 100 (100 horas al año) y la hora 200 (200 horas al año).

La primera de ellas incluye accidentes, la segunda accidentalidad y a falta de capacidad coyuntural, y la tercera accidentalidad y falta de capacidad estructural. Por lo tanto, teniendo en cuenta los datos de 2016, la hora 200 se produjo en un tramo de la Avanzada, mientras que la hora 100 lo hizo en Rontegi, la Avanzada, la recta del Max Center y Santo Domingo.

QUITAMIEDOS, PASARELA DE LABEAGA Y BIDEGORRI DE EZKERRALDEA

El orden del día se ha completado con tres preguntas orales por parte de EH Bildu en torno a los quitamiedos de la carretera BI-3341, la pasarela sobre la N-240 en el barrio Labeaga y el bidegorri de Ezkerraldea. La primera de las preguntas ha hecho referencia a un accidente registrado en abril de un ciclista de 15 años que sufrió una herida a causa del quitamiedos. A este respecto el diputado ha explicado que si bien los sistemas de contención cumplen la norma vigente, el 17 de abril se optó por modificar todo el sistema del tramo adaptándolo a las exigencias de la Norma Foral. Respecto al segundo asunto, el representante foral ha confirmado que actualmente ya se ha construido un itinerario peatonal que une ambos lados de la N-240 y que garantiza la seguridad y la movilidad de los peatones. Por último, en lo que al bidegorri de Ezkerraldea se refiere, ha expresado que el Departamento se encuentra actualmente acabando el informe de estudio que será remitido a las Juntas Generales de Bizkaia este mismo mes.